

Martutene

Amoia Etxeberria 943-210937


Ez da oraindik inolako erabakirik hartu Urumeako autobia inguruan. Gai honi buruz, ezadostasunak dira nagusi. Autobiak zortzi hilabete daratza geldirik eta hala jarraituko duela dirudi.

Orain arte autobia buruzko bi proiektu zeuden. Orain bost dira mahaigainean dauden proposamenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aspaldi aurkeztu zuen proiektu ofizialaz gain, urriaren 9an, beste hiru egitasmo aurkeztu zituen.

Okendotegi, Urumeako autobia kaltetutako elkarteak, Aldundiaren proiektu ofiziala salatu zuen aspaldi, kalte handiak egingo zituzke elakoan. Horrez gain, elkarteak, autobia egiteko beste bide bat proposatu zuen.

Autobia eztabaidagai



Okendotegi kaltetutako elkarteak ez du itxaropena galdu.

Okendotegik gehiengo

Aldundiko Errepide sailak eginiko bileran, gehiengoak, EH, PSE eta PP Okendotegi elkartearen proiektuaren alde egin zuen eta EAJ eta EAK berriz, ofizialaren alde. Gehiengo Okendotegi elkartearen aldekoa zen arren, Aldundiak bi proiektuak injineru gabinetek azter zitzan erabaki zuen. Gabinetek honek bietatik bat aukeratu behar zuen. Dena den, bide

berriak ere proposa zitzaizkeen. Azterketa hau maiatzean hasi zen eta lau hilabete iraun ondoren, urriaren 9an egin zuen Aldundiak bere aurkezpena. Bertan proiektu ofizialaz gain, beste hiru egitasmo aurkeztu zituen.

Elkartea haserre

Okendotegi elkarteari ez zaio ongi iruditu Aldundiak beste hiru proposamen aurkeztu izana. Gabinetek egingako azterketa, adar jotzea

Okendotegi-k hilaren 23an aurkeztuko du bere proiektua

izan dela diote. "Aldundiak, ez zuela beste proiekturik onartuko zioen, ez gurea eta ezta besterik ere. Orain berriz, beste hiru aukera ere posible dira. Gauzak erraztu beharrean zailtzen ari dira eta dena atzeratzen doa", adierazi digu haserre, Koldo Aduriz Okendotegi elkartearen kideak.

Elkarteak urriaren 23an egingo du bere proiektuaren aurkezpena, Batzar Nagusitan. Egun horretan auzotarrak beren egitasmoa defendatzeko aukera izango dute.

"Ez dugu itxaropena galdu. Azterketa hasi baino lehen gehiengo ginen. Aurkezpenaren ondoren, gehiengo izaten jarraitzea espero dugu", dio Adurizek.

Sukalde altzariak

EGURRA

Donostia

Erakusketa: San Frantzisko 12 • Tel.: (943) 281098 • DONOSTIA
Fabrikazioa: Sukalde Altzariak • IBARRA • Tel.: (943) 691273 • ZIZURKIL

EL TURISTA

KIROI ETA BIDAETARAKO
ARTIKULUA

LEGAZPI, 6 • Tel.: (943) 42 77 46

Otaegui

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

1886-an sortutako artisau gozodenda

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Sekundino Esnaola, 2
Telf.: 943 276933

Narrika, 15
Tel.: 943 425606

Matia, 3
Tel.: 943 218089

Garibai, 23
Tel.: 943 421045